

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

# 2544

*IRAGARKIA, energiaren arloko inbertsioei laguntzak emateko bederatzizko programari buruzkoa.*

Energiaren Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailaren menpeko erakundeak, energiaren arloko inbertsioei laguntzak emateko 9 programa abian jarriko direla iragartzen du.

Aipatutako programen oinarriak eskuragarri daude Energiaren Euskal Erakundearen bulegoetan (Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48011, Bilbao) eta erakundearen webgunean: [www.eve.es](http://www.eve.es).

Laguntza-programei buruzko informazio orokorra jasetzeko, deitu 94 403 56 00 telefonora.

Eskabideak aurkezteko epea iragarki hau argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2013ko irailaren 30ean amaituko. Eskatutako dokumentazio guztia bidali eta behar bezala bete ondoren, eskabideei EEEn bulegoetan jasotzen hurrenkeran erantzungo zaie, eta dauden diru-laguntzak bukatu arte.

Etxetresna elektrikoaren Renove Planaren eskaerak planarekin bat egingo duten saltokietan egingo dira.

Programa bakoitzaren aurrekontu-dotazioa hauxe da:

Diru-laguntza programa	Diru izendapena (euro)
Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna	5.800.000
Energia eraginkortasuna udaletxeetan	3.000.000
Garraio eta mugikortasun eraginkorra	2.750.000
Energia berriztagarriak	4.800.000
Energia eraginkortasuna administrazio publikoan energia zerbitzu enprekin (ESE) kontratuen bidez	2.000.000
Etxetresna elektrikoaren Renove plana	1.500.000
Kondentsazio-galdaren Renove plana	400.000
Instalazio elektrikoaren Renove plana bizitegi-eraikinetan	350.000
Etxebizitzetan leihoen Renove plana	1.500.000

Bilbao, 2013ko maiatzaren 15a.

Zuzendari nagusia,  
PILAR URRUTICOECHEA URIARTE.